



Kulturalak

14-17 urte



Ikas bidaiak

KATALOGOA 2022-2023.

T. +34 644 523 647
kaixo@feelmw.com

www.feelmw.com

@feelmw f Feel My Way



Nor gara?

Feel My Way Kooperatiban 14-18 urte bitarteko gazteentzat bidaiak (ikas bidaiak eta udako esperientziak) eta programak antolatzen ditugu.

Gazteek bizi nahi dituzten uneak nolakoak izatea nahi duten kontuan izaten dugu: **aske** sentitu, etapa berezi bati **amaiera ahaztezina** eman, **lagun artean** gozatu... Eta guk esperientzia erabat pertsonalizatzen dugu, beharrezko osagaiak txertatuz.

Hau horrela izanik, Feel My Way Kooperatiban, interes ezberdinen arabera **esperientzia bereziak** sortzen ditugu. Modu honetan, Euskal Herriko gazte guztiek haien etapari merezi duten itxiera eman ahal izatea dugu helburu.

14-17 urteko gazteentzat bidaiak 4 multzotan sailkatzen ditugu. Hona hemen bakoitzaren azalpena:

1 Katalago honetan, mota honetako adibideak aurkitzen dira!

Kulturalak

Ezagutu hiri eta herri ezberdinak ondo pasatu bitartean! Leku bakarra ezagutu, ibilbide bat egin... Aukera asko daude Espainia barruan zein Europa mailan.

2 Salou eta inguruak

Kataluniako kostaldeak ez du inoiz huts egiten! Eguraldi ona, distantzia ez horren luzea, denetari-ko ekintzak eta Port Aventura izanda... Zer gehiago eskatu daiteke?

3 Tematikoak

Eta zer esan ikasgai bat gelatik kanpo lantzeari buruz? Bidai tematikoak, ondo pasatuz, landutakoa praktikan jarri, pertsona eta enpresa / elkarte berriak ezagutu eta ikuspegia zabaltzeko aukera dira!

4 Gertukoak

Abenturaz beteriko bidaia bizi, baina ez bada urrutira joan nahi, Euskal Herrian bertan, edo Asturias zein Kantabrian ekintza pila bat egin eta lagun artean ondo pasatu daiteke!

Feel My Way bidaietan...



Antolakuntza
laguntza



Logistika
pertsonalizatua



Taldearen
arabera
programa



Begiraleak eta
dinamizazioa



Kantzelazio
eta asistentzia
asegurua



Finantziazioarako
aukera
berritzaileak

14-17 urtekoentzako ikas bidai kulturalen adibideak:

Jarraian agertzen diren aukerak orain arte antolatu ditugun esperientzia batzuen adibideak dira.

1. ADIBIDEA: Futuroscope – Paris – Disneyland

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Goiza	Autobusean irteera eta Futuroscopen egun-pasa	Parisera autobusean	Louvrera bisita, Codigo Da Vinciren jolasari jarraipena emanaz eta denbora librea	Disneyland Paris	Autobusean itzulera
Arratsaldea		Denbora librea, Montmatre auzoan ekintza eta ilunabarra ikusi	Parisen argazki rally-a eta Eifel Dorrean ilunabarra		
Gaua	Poitiersen kluedoa	Pariseko hostelean Codigo Da Vinciren jolasaren hasiera	Pariseko hostelean Codigo Da Vinciren jolasaren amaiera	Parisen itxiera gaua	

Data: Denboraldi baxuan.

Ikasle kopurua: 100 ikasle.

Arduradunak: 5 irakasleren bidaiko gastuak eta begirale baten gastu osoa.

Garraioa: 5 egunetarako 2 autobus pribatu.

Ostatua: Gau 1 Futuroscopeko B&B Hôtel à Poitiers hotelean eta 2 gau Pariseko St Christopher's Inn Paris Canal hostelean.

Otorduak: Pentsio erdia (gosari eta afariak barne).

Asegurua: Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguru.

Ekintzak:

- Futuroscopera sarrera arrunta.
- Louvrera sarrera.
- Disneyland Parisera sarrera arrunta.
- Bertan egingo diren dinamika ezberdinak eta lekuei buruz emango diren gomendioak.

Prezioa: 490€ pertsonako

(BEZ-a barne)



MW

FEEL MY WAY _ 3

2. ADIBIDEA: *Praga*

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Goiza	Joaneko hegaldia*	Pragako erdigunea ezagutzeko escape street-a**	Pragako gazteluaren inguruak ezagutzeko objektu-puntu jolasa**	Etxe dantzariaren ingurua ezagutzeko ginkana kulturala**	Pragan denbora librea
Arratsaldea	Ostatuaren inguruak ezagutzeko denbora	Pragako auzo berrian denbora librea	Museo Tekniko Nazionalea / Antzerki beltzeko emanaldia	Pragan denbora librea eta Petrin dorrearen parkean ilunabarra	Itzulerako hegaldia*
Gaua	Letna parketik hiriaren bistak ikusi	Bertako pertsonak ezagutzeko jolasak**	Pragako erdigunean denbora librea	Pragan itxiera gaua	

*Bilboko aireportura iristeko eta itzultzeko garraioa, Pragako aireportutik ostatura iristeko garraioa eta hirian zehar mugitzeko ez daude prezioan sartuta, talde honen kasuan garraio-publikoan joatea delako aukerik onena. Honetarako gomendioak emango dira.

Data: Denboraldi baxuan.

Ikasle kopurua: 25 ikasle.

Arduradunak: 2 irakasleren bidaiko gastuak.

Garraioa: Hegaldiak fakturatutako maletarik gabe.

Ostatua: 4 gau Pragako Best Spot Hostelean.

Otorduak: Gosariak barne.

Asegurua: Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguruak.


Ekintzak:

- Museo Tekniko Nazionalerako sarrera edo Antzerki Beltzeko emanaldiaren sarrera.

- Bertan egingo diren dinamika ezberdinak eta lekuei buruz emango diren gomendioak.

Prezioa: 535€ pertsonako

(BEZ-a barne)



*Ekintza hau begiraleen dinamizazioaz burutzen da normalean. Irakasleak bakarrik joatearen kasuan, ekintzei buruzko informazio guztia emango da haien kabuz burutzeko (begiralerik ez da egongo eta). Nahiago izanez gero, ekintza sinpleago bat jartzea posible da.

3. ADIBIDEA: *Bartzelona*

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Goiza	Autobusean irteera*	Bartzelonako alde zaharra ezagutzeko mapa interaktiboa	Sagrada Familiara bisita	Guell Parkera bisita	Bartzelonan denbora librea
Arratsaldea	Ostatuaren inguruak ezagutzeko denbora	Bartzelonan denbora librea	Sagrada Familia, Milá Etxea eta Batlló Etxea ezagutzeko jolasen ibilbidea	Denbora librea eta El Carmen bunkerretan ilunabarra	Autobusean itzulera*
Gaua	Montjuic ingurua ezagutu	Bertako pertsonak ezagutzeko jolasak	MUHBA Turó de la Rovira-tik hiriaren bistak ikusi	Bartzelonan itxiera gaua	

*Autobus geltokira iristeko eta itzultzeko garraioa, Bartzelonako geltokitik ostatura iristeko garraioa eta hirian zehar mugitzekoa ez daude prezioan sartuta, talde honen kasuan garraio-publikoan joatea delako aukerik onena. Honetarako gomendioak emango dira.

Data: Denboraldi altuan.

Ikasle kopurua: 10 ikasle.

Arduradunak: Begirale baten gastu osoa.

Garraioa: Autobus publikoa.

Ostatua: 4 gau Bartzelonako apartamentu batean.

Otorduak: Pentsio osoa. Otorduak gazteek antolatzen dituzte aurrekontu itxi batekin (asteko menua erabaki, erosketak egin, sukaldatu, ontziak garbitu...).


Asegurua: Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguruua.

Ekintzak:

- Sagrada Familiara sarrera.
- Guell Parkera sarrera arrunta.
- Bertan egingo diren dinamika ezberdinak eta lekuei buruz emango diren gomendioak.

Prezioa: 395€ pertsonako

(BEZ-a barne)



MW

FEEL MY WAY _ 5

4. ADIBIDEA: *Sevilla – Granada*

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Goiza	Salamanca humor amarillo ekintza eta parrilada*	Sevilla ezagutzeko ginkana kulturala eta Triana auzoan denbora libre	Granadara autobusean eta Alhambrara bisita	Granadan paintball	Autobusean itzulera
Arratsaldea	Sevillara autobusean	"Mirador de Setas" -en ilunabarra	Granada ezagutzeko argazki rally-a	Granadan denbora libre	
Gaua	Ostatuaren inguruak ezagutzeko denbora	Bertako pertsonak ezagutzeko jolasak	Granadako erdigunean denbora libre	Granadan itxiera gaua	

***Salamanca**ko ekintzak aukeran: Humor amarillo ekintzaren partez, tirolina parkea, burbuilazko botetan futbola edo paintball aukera daiteke. Igerilekua, karaokea eta dj-a ere daude prezioaren barruan.

Data: Denboraldi baxuan.

Ikasle kopurua: 30 ikasle.

Arduradunak: 2 irakasleren bidaiko gastuak.

Garraioa: 5 egunetarako autobus pribatua.



Ostatua: 2 gau Sevillako Black Swan hostelean eta beste 2 Granadako Eco Hostelean.

Otorduak: Gosariak barne.

Asegurua: Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguru.

Ekintzak:

- Salamanca ekintzak: humor amarillo, etab.
- "Mirador de Setas" -era sarrera.
- Alhambrara sarrera.
- Granadan paintball.
- Bertan egingo diren dinamika ezberdinak eta lekuei buruz emango diren gomendioak.



Prezioa: 495€ pertsonako

(BEZ-a barne)

5. ADIBIDEA: *Salamanca*

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Goiza	Autobusean irteera eta Salamancan paintball	Salamanca ezagutzeko tour gidatua, eta leronimus katedraleko dorreetara igo	Piraguan, ibaiaren jeitsiera (Encinas de Abajo-tik Huertara)	Salamancan humor amarillo eta burbuilazko futbola	Autobusean itzulera
Arratsaldea	Ostatuaren inguruak ezagutzeko denbora	Salamancan denbora libre	San Bernardo eta mendebaldeko auzoetako muralen argazki rally-a	Denbora libre eta Volcan de Garrido behatokian ilunabarra	
Gaua	Salamancan kluedoa	Bertako pertsonak ezagutzeko jolasak	Salamancako erdigunean denbora libre	Ostatuko inguruan itxiera gaua	

Data: Denboraldi baxuan.
Ikasle kopurua: 60 ikasle.
Arduradunak: 2 irakasleren bidaiko gastuak eta begirale baten gastu osoa.
Garraioa: 5 egunetarako autobus pribatua.
Ostatua: 4 gau Salamancako Bardo Recoleta hotelean
Otorduak: Pentsio erdia (gosari eta afariak barne).
Asegurua: Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguru.

Ekintzak:

- Salamancan paintball (100 bola).
- Salamanca ezagutzeko tour gidatua.
- leronimus, Salamancako Katedraleko dorreetara igotzeko sarrera.
- Piraguan ibaiaren jeisiera.
- Salamancan humor amarillo eta burbuilazko futbola.
- Bertan egingo diren dinamika ezberdinak eta lekuei buruz emango diren gomendioak.

Prezioa: 370€ pertsonako
(BEZ-a barne)



Kantzelazio eta bidai asistentziako aseguruia

Kantzelazioko eta bidai asistentziako aseguruia kontratatuta izatean:

- Esperientzian zehar aseguruak estalitako kasuak ematen badira **asistentzia** izango da
- Esperientzia indibidualki zein talde bezala **kantzelatzeko** aukera egongo da aseguruak estalitako arrazoiengatik, eta guztia itzuliko da aseguruaren kostea izan ezik

Aseguruak estaltzen dituen baldintzen **LABURPENA**: <https://labur.eus/dqZVs>

Poliza **OSOA**: <https://labur.eus/f0bNf>

Informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan kaixo@feelmw.com-era idatziz.

Kantzelazio irizpide gehigarriak

Kantzelazio aseguruak estalitakoaz gain, **kantzelazio gehiago izanez gero kasu bakoitza aztertuko** da. Izan ere, urtero ematen dira bidaira joan ezin izateko kasu bereziak, aseguruaren aurrean justifikatu ezin direnak: jarrera dela eta, ibilbide akademikoan izandako gorabeherak, arazo pertsonalak... Beraz, kasu hauetan, kantzelazioa aseguruaren aurrean justifikatu ezin diren arrazoiengatik bada, taldeak **X€** izango ditu kantzelazioko gastuak estaltzeko. Honek saldo bat bezala funtzionatuko du.

(X€ jarrita dago, kasu bakoitzean ezberdina delako. Adibidez, saldo hori, 60 pertsonako bidai bat antolatu duen ikastetxearen kasuan, bi ikasleren prezioaren baliokidea izango litzateke. Hau da, bidai horren prezioa 465€ baldin bada, eta saldoa 2 ikasleren baliokidea izango balitz, saldoa 930€ izango litzateke).

ADIBIDEA:

Kantzelazio bat ematen denean, unean bertan kalkulatu da zenbat den kasu horretan itzuli ezin daitekeen kopurua. Demagun 300€-ko bidai batean ikasle batek kantzelatzen duela eta unean bertan 100€ itzuli ezin direla. Ikasle horrek 100€ berreskuratu ahalko zituen, taldearen saldoa erabiliz. Imaginatuz talde horren saldoa 500€ zirela, orain 400€ geratuko ziren saldoan erabiltzeko. Eta ikasle honen itzulketa tramitatzerako orduan, 300€-ak bidaia amaitu ostean itzuliko zituen Feel My Way Kooperatibak taldearen kontu korronte bateratura. Horrela egiten jarraituko litzateke ikasle gehiagoren kantzelazioa egonez gero

Hori bai, kontuan izan behar da, saldoa xahutzen den unetik aurrera, kantzelazio gastu gehiago ez direla estaliko. Nahiz eta hau ez den ohikoena izaten. Azken batean, saldo honen helburua, benetan garrantzitsuak diren arrazoiengatik kantzelatu nahi duten pertsonak dirurik ez galtzea da, aseguruak erantzuten ez duen

Kantzelazioen ohiko galderak

NOIZ ABISATU BEHAR DA KANTZELAZIO BAT DAGOELA?

- Aseguruak estalitako edo estali gabeko kasua izanda ere, **BETI KANTZELAZIOA EMATEN DEN UNEAN BERTAN ABISATU BEHAR DA EMAILEZ BIDAIA DINAMIZATZAILEARI**. Dinamizatzailearen aldetik erantzunik jaso ez bada, jarri telefonoz harremanetan Feel My Way Kooperatibarekin.

NOLA ETA NOIZ BURUTZEN DIRA ITZULKETAK?

- Aseguruak estalitako kasua bada, itzulketa Feel My Way Kooperatibak kudeatuko du. 2 hilabeteko iraupena izaten du gutxi gorabehera itzulketa tramiteak, eta ondoren, aseguruak ikasle horren kontu korrontera (edo gurasoarenera) egiten du transferentzia.
- Feel My Way Kooperatibak kudeatutako saldoaren bitartez bada, itzulketa bidaia amaitzen denean egiten da, transferentzia bakar batean, taldearen kontu korronte komunera.

Ordainketak eta inkorporazioak

Bidai guztiak taldeko bidaiak direnez, ordainketa hauek **transferentzia bakarrean** egiten dira. Azkenik, behin bidaia kontratau ostean ematen diren taldeko inkorporazioei dagokienez, **inkorporazioa eman den unean zehaztuko dira prezioak eta baldintzak**, hornitzaileen tarifa, baldintza eta leku libreen araberakoa izango baita.

